

Aldundiak erantzun ezean, auzitara joko du Pasaiak

Pasaia eta Donostiaren arteko mugen auzian abendurako erantzuna nahi dute

ERREDAKZIOA

Urtebete igaro da Pasaiaren 200. urteurrenaren harira, Pasaia eta Donostiaren arteko mugen auzia plazaratu zenetik. Horren harira, auziaren egoeraren inguruan hitz egin du Joseba Belaustegik, Pasaiako Udaleko idazkari eta legalaria, *Oarsoaldeko Hitzan*.

Belaustegik bertan adierazi du Pasaiako Mugen Batzordea zein bide juridiko hartu aztertzen ari dela. Bide juridikoa zein izan behar den argitzeko, Aldundiarekin elkartzeko zain daude. Izan ere, Aldundia ardu-

ratzen da herrien arteko mugak finkatzeaz. Belaustegik esan duenez, Aldundiak abendurako ez badu erantzunik ematen, auzitegitara joko du Pasaiak.

Pasaiako ordezkariak XIX. mendeko Vargas Ponceren ebazpena hartu dute oinarri gaur egun Donostiarenak diren hainbat lur Pasaiari dagozkiola esateko. Agiri horietaz galdetuta, dio ez dagoela ebazpen hori ukatzen duen beste ezer, eta beraz, ebazpenean esaten den bezala, Uliako isurialde guztiak Pasaiarenak lirajteke. Hala ere, ez du auzi hau



J. Belaustegi. OARSOALDEKO HITZA

historiko bezala ikusten, arazoa legalitatearen ikuspuntutik aztertuko dutelako. «Altzako hainbat pertsonak arlo historikora eraman nahi dute eztabaida, baina hor ez gara sartuko, beste herrien izaerak eta eskaerak errespetatzen ditugulako»

Bestalde, Belaustegiren ustez, Donostiaren isiltasunak ere adierazten du Pasaiaren eskaera ez dela zentzugabea.